



**ONDOKO LOKALEN MANTENTZE-GARBIKUZI ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA: LEGARDA ETA LAUKARIZ IKASTETXEAK; KOMUN PUBLIKOAK; OBRA ETA ZERBITZUEN PABILOIA; UDAL-BULEGOAK; EPAITEGIA; OLENTZEROREN ETXEA; HHE; ANDRA MARIKO LOKALAK, BABES ZIBILEKO ETA GURUTZE GORRIKO LOKALAK; ETA ERABILERA ANITZEKO ERAKINEKO LOKALAK.**

#### I.- KONTRATUAREN EDUKIA

##### 1. KONTRATUAREN HELBURUA

Agiri honen helburua ondoko lokalen garbiketa zerbitzuaren lizitazio publikoa arautuko duten baldintza teknikoak ezartzea da. Hona hemen lokal horiek:

Legarda ikastetxea  
Laukariz ikastetxea  
Ondoko komunak:  
Foruen enparantzakoak  
Uriguen zugastikoak  
Atxuzubikoak  
Olaldekoak  
Lauaxetakoak  
Aita Elorriagakoak  
- Goietako plazakoak  
Obra eta Zerbitzuen pabiloia  
Udal bulegoak  
Epaitegia  
Olentzeroren etxea  
HHE  
Andra Mariko lokalak  
Babes Zibila  
Gurutze Gorria  
Erabilera Anitzeko Eraikineko lokalak

Aipatutako zerbitzuen kontratazioa eta zerbitzua bera –procedura ireki bidez egingo dena– arautuko duten jarraibideak eta zehaztapenak biltzen ditu agiri honek.

Zerbitzua behar bezala eskaintza garrantzi handikoa da, egon ere, eskolei (irakaslek eta ikasleak) eta herritarrei zuzenduta dago.

##### 2. BALDINTZA TEKNIKO OROKORRAK

2.1.- Kontratu honetan aparteko ehun (100) ordu sartzen dira, ez-ohiko garbiketak egiteko, eranskinean doan ordutegian agertzen ez direnak. Mantentze-lanen arduradunari hilean-hilean aurkeztu beharko zaio aparteko ordu horien erabilera gaineko informazio eguneratua.



2.2.- Eskaintzetan ondoko prezioek agertu beharko dute:

Aparteko orduaren prezioa (langile arruntena) – ohiko ordutegiaren barruan	
Aparteko orduaren prezioa (langile arruntena) – jaiegunetan	
Aparteko orduaren prezioa (langile arruntena) – gaueko ordutegian	
Aparteko orduaren prezioa (garbiketako arduradunarena) – ohiko ordutegiaren barruan	
Aparteko orduaren prezioa (garbiketako arduradunarena) – gaueko ordutegian	

2.3.- Ez-ohiko arrazoia direla-eta beharrezkoa bada udal bulegoak jaiegunez, zapatuz edo domekaz garbitzea, adjudikazioa lortzen duen garbiketako enpresari ez-ohiko zerbitzu horren ordutegia eta ezaugarriak azalduko dizkio Udaleko Zerbitzu Arduradunak. Zerbitzu hori bete ostean, enpresak albarana aurkeztu beharko du, erabili diren orduak zehaztuta. Albaran hori onartutakoan, ordu horiek kendu egingo dira goian aipatutako beste ehun ordu horietatik. Enpresak hilero eman beharko dio Udalari gelditzen den ordu kopuruaren berri. Behin ordu horiek amaitu ostean, hortik aurrera egiten direnak hileroko fakturan sartuko dira. Ez-ohiko zerbitzuak eskatzeko, orduen eskabide-orria bete beharko da (Udalak ezarritako eredu erabilita).

2.4.- Tamaina edo garrantzi handiko ez-ohiko zerbitzuak (lehenengo garbiketak, obren ostekoak...) banan-banan negoziatuko dira, eta ordutegi kontrola ez-ohiko garbiketetan bezala egingo da. Ez-ohiko zerbitzuak eskatzeko, orduen eskabide-orria bete beharko da (Udalak ezarritako eredu erabilita).

2.5.- Garbiketak egiteko beharrezko diren elementuak edota ekipoak adjudikazioa lortu duen enpresak berak jarri beharko ditu. Toxikoak ez diren produktuak erabiliko dira, euren segurtasun-fitxak ezartzen duenari jarraituta. Garbiketarako produktuak aukeratzeko, irizpide ekologikoak erabiliko dira.

Garbiketak egiteko beharrezko diren kontsumigarri guztiekin homologatuta egon beharko dute eta dagokien osasun-erregistroa eduki beharko dute. Kontsumigarri guzti horiek adjudikazioa lortzen duen enpresak ordaindu beharko ditu. Produktuak desegokiak badira, Udaleko Zerbitzu Arduradunak eskumena izango du produktu horiek ez erabiltzeko agindua emateko.

2.6.- Enpresa adjudikazioduna behartuta egongo da bere langile guztiei euren lana segurtasunez eta higienez egiteko beharrezko diren elementu guztiak ematera. Goi-altueretan egiten diren garbiketa-lanen kasuan, beharrezkoak diren babes-neurriak ezartzea eskatuko du Udalak. Era berean, enpresa adjudikazioduna behartuta dago bere langileek erabiltzen dituzten makina, erreminta eta tresnei buruzko legediari egiten zaizkion aldaketa guztiak egunean izateko.

Hori bermatzeko, enpresak aldiro-aldiro egiaztatua beharko dio Udaleko Zerbitzu Arduradunari bete behar hori bete egiten duela. Egiaztapen hori Zerbitzu Arduradunak ezarritako moduan egin beharko da.

2.7.- Egunero, astero, hilero, hiruhilero, seihilero eta urtero eskaintzen diren zerbitzuen jarraipena egin ahal izateko, enpresak hilean-hilean parte bat aurkeztu beharko du egin diren lanak non egin diren eta zeintzuk izan diren adierazteko. Parte hori, Udaleko Zerbitzuburuak ontzat emanez gero, onartu egingo da. Sistema horretaz aparte, kontratatutako zerbitzua bete egiten dela egiaztatze aldera, organo eskudunek ahalmena izango dute beste tresna edo prozedura batzuk erabiltzeko.

2.8.- Enpresa adjudikaziodunaren solaskideak hamabost egunik hamabost egunera bisitatu beharko du instalazioa eta Udaleko Zerbitzuburuarekin hitz egin. Urtero-urtero txosten bat egin beharko da (kopia bi), eta bertan ondoko gaien berri eman beharko dute:

- Hondakinen bilketako eta kudeaketako datuak eta egiaztagiriak (hondakinik egonez gero).
- Ez-ohiko garbiketen gaineko informazioa.



- C. Sektorearen Hitzarmenean, arloko lan-arautegian eta aplikagarriak diren gainerako lege eta arauetan gertatu diren aldaketak.
- D. Hobekuntzak, aldaketak...
- E. Erabiltzaileen oharren eta kexen zerrenda (sistematizatua).
- F. Langileen ordutegiaren kontrolaren laburpena. Absentismoari buruzko estatistikak, arrazoik eta egiaztagiriak.
- G. Aparteko orduak egiteko arrazoik.
- H. Beste batzuk

Txosten hori hileroko fakturari atxikiko zaio.

Faktura horiek aurkeztu eta kobratu ahal izateko, ezinbestekoa izango da txosten horiek adierazitako era horretan aurkeztu izana.

### 3.- ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAK JARRI BEHARREKO GUTXIENEKO MAKINEN ETA EKIPOEN ZERRENDA

Makina guztiak bete beharko dute zarata, kutsadura eta segurtasun arloan indarrean dagoen araudiak ezarritakoak, eta zarata-mailarik txikiena sortzen dutenak eta ur zein energia (elektrikoa edota erregaiak) kontsumorik baxuenak dituztenak aukeratuko dira.

Makinaren bat matxuratzen edo bestelako ezustekoren bat gertatuz gero, gorabehera horren berri gehienez ere 24 orduko epean eman beharko da eta 5 eguneko tarteak bete baino lehenago aldatu beharko da makina hori.

Berak jarriko dituen ekipo eta makinen zerrenda aurkeztu beharko du adjudikaziodunak, makina eta ekipo horien ezaugarri teknikoak zeintzuk diren zehaztuta. Garbiketa-planak ezarritako helburuak lortzeko, materialaren kantitatea eta kalitatea ere handitu ahal izango da, betiere, Udalari inongo gain-kosterik eragin barik.

3.1.- Udalak doan hornituko ditu garbiketa-zerbitzurako beharrezko diren ura eta argi-indarra. Adjudikaziodunak, berri, konpromisoa hartzen du energia eta baliabide naturalak zentzuz erabiltzeko zerbitzuak betetzen dituen artean. Zerbitzuak amaitu ostean, lokal guztiak itzalita utzi beharko dituzte.

Era berean, Udalak ez dio inolako instalaziorik utziko adjudikaziodunari; hala ere, adjudikaziodunak aukera izango du eraikinetan dauden lokal txikiak biltegi modura erabiltzeko.

### 4. LANGILEAK

#### 4.1.- Alde orokorra

Lanak behar bezala egiteko behar diren giza baliabideak jarri beharko ditu enpresa adjudikaziodunak, bai eta langileen bajak (absentismoak, gaixotasunek, oporrekin edo justifikatutako beste edozein arrazoik eragindakoak) betetzeko ere.

Bete beharreko zerbitzu bakoitzerako aurreikusitako lan eta langileei buruzko aurreikuspen zehatza aurkeztu beharko da, baita ordezkapenetarako eta lan bereziatarako erabilgarri dauden langileei buruzkoa ere.

Kontratistak enpresako pertsona bat izendatu beharko du kontratu honetan aipatzen diren lokalen garbiketa-lanak gainbegiratu ditzan. Pertsona horrek hartuko du lanak behar bezala gauzatzearren ardura, eta bera izango da Udaleko Zerbitzuburuarekiko harremanetarako solaskide bakarra.



#### 4.2.- Uniformetasuna

Garbiketa-zerbitzuko langiletzat erraz identifikatzeko moduko sistemaren bat erabiliko beharko dute langile guztiak, zerbitzuen segurtasuna bermatzeko, lizitatzailak proposatutako identifikazio-sistema erabili beharko dute.

Arroparen kantitatea eta kalitateari dagokionez, hitzarmen kolektiboetan ezarrikoa beteko da.

#### 4.3.- Zerbitzuak betetzeko ezinbesteko diren lanpostuak:

- Arduradun bat edo Zerbitzuaren gainbegiratzaile bat, zerbitzua zaindu eta egunero kontrolatzeko. Pertsona horrek telefono mugikorra erabili beharko du eta lokalizatzeko moduan egon beharko du une oro.
- Lizitatzailak bere eskaintzan aurkezten duen zuzeneko langile-plantila.

#### 4.4.- Langileen subrogazioa

Lan-kontratuengen subrogazioa: gai honetan lan arloko legediak ezartzen duena bete beharko du kontratistak. Agiri honekin atera doan ERANSKINA izeneko dokumentuan agertzen dira oraingo plantila osatzen duten langileen baldintzak eta ezaugarriak. Bertan, taula baten bidez, ematen da plantilaren egoeraren gaineko informazioaren laburpena.

#### 4.5.- Adjudikaziodunak langileekin dituen betebeharrok

Adjudikaziodunak prestakuntza saioak egin beharko ditu bere langileentzat, langile horiek bereak zein subrogatuak izan. Prestakuntza hori lan segurtasunaren, ergonomiaren eta garbiketa-produktuen (toxikoak eta arriskutsuak izan litezkeelako) gainezko izango da. Prestakuntza horretan ondoko gaien inguruko informazioa emango zaie langileei: zerbitzuaren helburu eta printzipio berriak, ingurumen irizpideak aplikatuta; erabili behar diren produktuak zeintzuk diren eta, kontratuaren ezarritakoari jarraituta, administrazioak ingurumen arrazoiengatik baztertu dituen edo euren erabilera murriztu duen produktuak zeintzuk diren; garbiketa eta dosifikazio metodoak; lanerako makinak eta ekipoak; eta hondakinen kudeaketarako beharrak.

4.6.- Garbiketako langile guztiak ordutegi-kontrola bete beharko dute egunero. Kontrol hori astero-astroa Zerbitzu buruak ikuskatu beharko du eta enpresa adjudikaziodunaren solaskideari jakinarazi beharko dio. Adjudikazioduna behartuta dago ohiko langileak lanera ez doazenean (gaixotasun, opor edo bestelako arrazoien batengatik) leku horiek betetzera. Eta Udalari jakinarazi beharko dizkio kontratatutako zerbitzua eskaintzeko beharrezko den personalean sortzen diren aldaketa guztiak.

Adjudikaziodunak gehienez ere 24 orduko epea dauka lanera joango ez den langilea ordezkatzen (ez joate horren arrazoa edozein dela ere: ezintasunak, ikastaroak, baimenak...) eta horren berri emateko.

Zerbitzuaren Arduraduna aldatu edo ordezkatu beharra egonez gero, adjudikaziodunak Udalari idatziz (eta behar besteko aurretiaz) proposatuko dio aldaketa hori, eta proposatutako pertsonaren curriculuma erantsiko dio eskariari. Udalak proposamena aztertu ostean eta ondo baderitzo, ordezkatze hori egiteko baimena emango du.

#### 4.7.- Prisazko lanetarako langileak

Kontratistak larrialdietarako telefono bat erabiliko du, eskari-deiei, erreklamazioei eta aginduei erantzuteko. Horretaz gain, zerbitzuan sor litezkeen ezustekoei aurre egiteko beharrezko diren baliabideak izan beharko ditu edo, bestela, gehienez ere 6 orduko epean eskuratu.

Kontratazio honek zerbitzuaren kalitatea eta kantitatea bermatzeko ezartzen dituen betebeharrok gutxienekotzat jo behar dira, eta beraz, lizitatzailak aukera izango dute baldintza horiek hobetzeko, betiere, Udalari hobekuntzaren bat ekarriz gero.



## 5. ZERBITZUAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK

### 5.1.- Oinarrizko garbiketa zer den

Arau orokor modura, aipatutako zentro eta lokalek dituzten azalera osoak garbitu beharko dira, beraz, gelak, bulegoak, pasabideak, komunak, eskailerak, esku-bandak, liburutegiak, biltegiak etab. Baita, ondokoak ere: altzariak; ekipamendu finkoak; dekorazioko elementuak; era guztietako parametro bertikalak; sabaiak; mahaia; aulkia; besaulkiak; armairuen aurre-hormak, albo-hormak eta goiko aldeko hormak; mostradoreak; alfonbrak; lanparak; koadroak; lorontzien euskarriak; pertsianak; ekipamendu sanitarioak; dutxak; konketak; pixontziak; tapak eta antzekoak; eskuilak; xaboi-ontziak; eskuak sikitzeakoak; erroilu-euskarriak; leihoa; ateak; ispiluak; barruko eta kanpoko leihoa...

### 5.2.- Garbiketa-lanen ezaugarri teknikoak

Garbiketa-lanak ondokoak izango dira:

#### 1) ZORUAK:

Zoruak erratzez eta urez garbitu beharko dira, betiere, zoruaren materiala kontuan hartuta, produktu eta sistema egokiak erabilita. Hautsa eta zikinka kenda beharko zaie, eta estetika egokia jagon beharko da. Garbiketa hori egiteko maiztasuna lokal edo zentro bakoitzaren arabera ezarriko da.

Zoruak aztertu eta bereziki jagongo dira, eurok jasotzen dute-eta eraikinetan sartzen den zikinkeriaren %50.

Egoerak aukera eskaintzen duenean, zoladurak egokitu egingo dira, hau da, mantentze-lanak erraztu eta arrazionalizatzeko beharrezko diren aldaketak aplikatuko zaizkie, gerora, zikinka arinago eta errazago kenda eta higiene eta estetika maila hobea lortu ahal izateko.

**ZORU GOGOR ETA POROTSUAK:** besteak beste, marmola, terraza, baldosak edo antzekoak. Mota honetako zoruei izaera neutroko produktu zigilatzailea aplikatuko zaie (ur-oinarrizko soluzioa erabilita); horretara, zoruak iragangaitz eta homogeneo bihurtuko dira, eta ondorioz, ez zaie zikinkeriarik sartuko edo zikinka hori erraz altxatu ahal izango da.

Eragin estetiko handiagoa lortzeko, zoruei distira emateko erabiltzen diren emultsioak erabiliko dira, ez-irristatzekoak. Lan horien maiztasuna trafikoaren, higaduraren eta zikinka-mailaren arabera ezarriko da. Osteko mantentze-lan nagusia “eskobatze hezea” esaten zaiona izango da. Sistema horren bidez, hauts guztia kentzen da eta, aldi berean, mopa eta detergente neutro baten bidez, zikinka eta orbanak kentzen dira.

**ZORU EZ-POROTSUAK:** besteak beste, granitoa eta baldosa mota batzuk. Mota honetako zoruetan batzen den hautsa xurgatu edo erratzez garbituko da. Erratzez garbituz gero, konposatu berezi bat erabiliko da hautsa airean zabaldu ez dadin. Eta gero, mopa eta detergente egoki bat erabilita, urez garbituko da.

**ZEMENTU ETA HORMIGOIZKO ZORUAK:** zoru horiek erratzez garbitzen direnean, konposatu berezi bat erabiliko da, hautsa airean zabaldu ez dadin, edo, bestela, aspiragailua xurgatuko da hautsa eta gero urez garbituko dira.

Harri naturalezko edo artifizialezko zoruetan ez da erabiliko azidorik, oso eragin kimiko kaltegarria dutelako material horietan.



EGURREZKO ZORUA barnizatuak: moparen bidez garbituko dira, hautsa batzeko produktu irristagaitz bat erabilita; eta gero, eskobatze hezea eta detergentea aplikatuko zaizkie.

Aldian-aldean argizaria egingo zaie (disolbatzaile batez nahasturik). Argizari berezia izango da, egur mota horrentzat egokia dena, eta lan horren helburua egurraren distira handitzea eta oinarrizko tratamenduaren iraupena luzatzea izango da. Hori egin ostean, makina baten bidez distira aterako zaio babes-geruza horri.

Argizaria emandako egurrezko zoruek, hautsari dagokionez, tratamendu bera jasoko dute, baina ez da inoiz urik erabiliko eurok garbitzeko. Argizaria eman eta distira aterako zaie maiztasunez, aldez aurretik argizari-geruza zaharrak kenduta.

PLASTIKOZKO ETA KORTXOZKO ZORUAK: Besteak beste, gomazko, sintasolezko edo antzeko zoru lauak eta homogeneoak. Zoru horiei garbiketa mekaniko sakona egingo zaie eta, gero, ur-oinarritzko zigilatzaile bat aplikatuko zaie. Zigilatzaile hori zoruaren gainean botatzeren helburua geruza gogor eta sendo bat sortzea da, zapata-zoruen eta jesarlekuen gurpilen gomak eragiten dituen marka beltzetatik babesteko. Babes-geruza horren helburua, marka beltzak eta sakonak ekiditzearaz gain, beste bat ere bada, zoladura horien bizi-iraupena luzatzea hain zuzen. Izen ere, zikinka errazago altxatzen denez, ez dago garbiketa-sistema gogorrik erabili beharrik.

Zoruen estetika hobetzeko eta euren jatorrizko itxurari eusteko, esandako sistema horretaz aparte, zigilatzailearen gainean emulstio autodistiratze eta distiragarri bat aplikatuko zaie, zikinka errazago altxatu dadin. Garbiketa horren mantentze-lanak honela egingo dira: "eskobatze hezea" izeneko sistema erabiliko da eta horren ostean makina batez lehor-distira emango zaie, betiere, lokalaren ezaugarriek horretarako aukera ematen badute edo ezaugarri horiek aipatutako sistema erabiltzea eskatzen badute.

Oinarrizko tratamendua behar den maiztasunaz berrituko da, eta babes emulstioaren berritzea Spray metodoaren bidez egingo da, hau da, eragiketa berean zoruak garbitu, argizaria egin eta distira emango zaie. Tratamendu hori aplikatzeko, distira emateko makinak eta argizariz eta agente garbitzailez osatutako produktu berezi bat erabiliko dira. Horixe da holako zoru lauak mantentzeko metodorik arrazionalena, eraginkorrena eta ekonomikoena.

Emandako emulstioa metalizatu autodistiratsua eta garbitu daitekeena bada, ez da "Spray" metodorik erabiliko; haren ordez garbiketa arin bat egingo da moparekin eta xaboi neutro batekin, hala behar izanez gero. Zoru mota hauetan ez dira erabiliko egoera puruan dauden disolbatzaileak edota oinarrizko produktuak, azken horiek oso kaltegarriak direlako, kasu batzuetan, zoruaren kolorea ere alda dezakete. Oinarrizko tratamenduei eutsi egingo zaie eta adjudikazio-dunak ezarritako programa bati jarraituta berrituko dira, zona bakoitzak dituen egoera bereziei egokituta. Gainera, urtean behin tratamendu sakonago eta osoago bat aplikatu beharko zaie.

ALFONBRAK ETA MOKETAK sakontasunez xurgatuko dira beharrezko den maiztasunarekin. Eta, aurretiaz jarritako programa bati jarraituta, zoru horiek jasaten duten trafikoa, zikinka-maila eta abar kontuan hartuta, garbiketa sakonagoa eta osoagoa egingo zaie txanpu egoki bat edo konposatu berezi bat erabilita; horretara, garbiketzeaz gainera, ehunezko zoru horien koloreak biztu egingo dira eta jatorrizko itxura berreskuratuko dute.

Orbanak maiz kenduko dira, baita sortzen diren bakoitzean ere, denbora gehiegi pasatzen utzi gabe, zoruaren zuntzean sar ez daitezten, kasu horretan garbitza zailagoa gertatzen baita.

2) KOMUNAK, DUTXAK ETA ALDAGELAK: Ahal den neurrian ez da azidorik erabiliko, berehala garbitzen badute eta ondorio ikusgarriak ematen baditzute ere, lizarora kalte konponezinak eragiten baitituzte, tutuetan, zoruetan eta osagarrietan.

Arreta berezia eskainiko zaio komunen garbiketari, euron erabilera higiene-mailarik altuena eskatzen duelako. Tresna sanitario guztiak eta lababoak zehatz eta sakon garbitu beharko dira, baita komuneko zoruak eta osagarriak ere.

Detergente neutroak edo alkalinitate handi bakoak erabiliko dira, kare-orbanak ebitatzeaz gain elementuek garbi iraun dezaten lagunduko dutenak. Ez da erabiliko urraturik edo markarik eragiten duen zapirik, elementu



esmaltatuak ez hondatzeko. Erabiliko diren detergente desinfektatzaileak ezingo dira urratzaileak izan, hori bai, zikinka eta usainak guztiz kendum (ez estali) eta germenak akabatu egin beharko dituzte.

Egunero edo garbikuzia egiten den egunetan, tresna sanitario guztiak zehatz garbituko dira eta usain txarren kontrako produktuak erabiliko dira. Detergente desinfektante eta bakterizidaz garbituko dira zoruak, eta ispiluak eta txorrotak ere garbitu eta lehortu egingo dira, eta bide batez, alikatak pasatu beharko dira; azulejuetako hautsa kendum beharko da eta garbitu egingo dira, baita ate, erradiadore, metal eta abarrak ere. Gainera, komun eta bainu-gela bakoitzean beharrezko diren material suntsikorrak egon daudela bermatuko da.

3) HORMAK, MANPARAK, ATEAK, MOSTRADOREAK: Aldian-aldian garbituko dira, aldez aurretik ezarritako maiztasunarekin. Garbialdi horietan orbanak eta hautsa kenduko zaizkie, material bakoitzarentzat egokiak diren produktuak erabilita.

Sabaiak eta hormak garbi, ezelango hauts barik, jagon beharko dira. Hauts hori aldizka garbituko da, aldez aurretik ezarritako maiztasunaz, material bakoitzarentzat egokiak diren produktuak erabilita.

Gainazal hauen garbiketa, baldin eta urarekin garbitzeko prestatuak badaude, eskuila arinekin eta xaboi neutroz egindako soluzio epelarekin egingo da. Eraikinetako barruko ateei markoetan, erlebe eta ertzetan gelditu zaien hautsa garbitu beharko zaie. Ateetako edo lokalen sarreretako urratuak (ate marko, etengailu, eta abarretakoak) behar den bakoitzean kenduko dira, une orotan garbiketa baldintza egokietan egon daitezen.

Ateetako eskulekuak eta eskubandak aldez aurretik hitzartutako programak ezartzen duen maiztasunaren arabera garbituko dira, betiere, material bakoitzarentzat egokiak diren produktuak erabilita.

Urre kolorekoak eta metalezkoak diren elementuak metalentzako detergente egokiez garbituko dira eta, hala badagokie, produktu babesle bat aplikatuko zaie, metala arinagi herdoildu ez dadin, eta horrela jatorrizko itxura gorde dezan.

Altzairu herdoilezinak detergente neutroz garbituko dira eta ez erabiliko agente urragarrik, markak eragin ditzakete eta, ezta produktu azidorik ere altzairuaren ezaugarriak aldatzeko arriskua dago eta.

Aluminioak ere detergente neutroz garbituko dira, eta ez da erabiliko agente urragarrik ezta azidorik ere, holako produktuek aluminioaren anodizatua alda dezakete eta.

Manparak aldian-aldian garbituko dira, euren osagaiei egokitutako produktuak erabilita.

#### 4) ALTZARIAK:

Hau da: aitatutako lokaletan dauden mahaia, aulkia, besaulkiak, gainazalak, armairuak, apalategi itxiak, hautsontziak, paperontziak, erradiadoreak, leihoko-barrenak...

Altzariak garbi eta txukun jagon beharko dira. Hauts zehatz garbitu beharko zaie gainazal osoan, eta horretarako baietak erabiliko dira. Hauts kentzeaz gainera, eguneroko erabileraren ondorioz sortutako markak ere garbitu beharko zaizkie.

Metalezko altzariak zapi heze bat erabilita garbitu beharko dira, eta sikatu ostean zapi leun bat pasatuko zaie distira emateko eta metalean gelditutako markak kentzeko.

Egurrezko altzariak zapi leun eta siku batez garbituko dira, eta aldian-aldian argizari berezi bat egingo zaie, jatorrizko ezaugarriei eusteko, eta une oro berri-itxura izan dezaten.

Urez garbi daitezkeen altzariak aldian-aldian urez garbituko dira, eta produktu babesle neutro bat egingo zaie gainetik zikinka itsatsi ez dakien.

Kartelak aldian-aldian garbituko dira bakoitzaren materialari (egurra, plastikoa, kristala...) ondo datorkion produktua erabilita.

Paperontziak egunero hustu eta garbitu beharko dira. Paperontzietako hondakinak dagozkien zabor-poltsetara botako dira, eta paperontziak usaindun detergenteak erabilita garbituko dira.

Lokalak egunero aireztatuko dira, behar bestean, bakoitzaren erabileraren beharrizanen arabera. Horretarako erabiliko den sistema leihoa zabaltzea izango da.

Erradiadore, armairu, apalategi, leihoko-barren eta antzekoetan pilatzen den hautsa aldian-aldian garbitu beharko da.

Orokorean, altzariak garbitzen diren guztietan, arreta berezia jarriko da mahaietan eta laneko tresna nagusienetan (arbelak, ofimatinako elementuak etab.).



Mahai gainean paperak edo dokumentuak egonez gero, luma-eskuila fin baten bidez kenduko da mahai gaineko hautsa.

5) BARRUKO KRISTALAK: ateetakoak, leihatiletakoak, atarteetakoak garbi eduki beharko dira, eta eurok garbitzeko goma eta irekitzekoa daukan tresna bat erabiliko beharko da. Markoa egurrezkoa bada, ahalegina egin beharko da markoaren ertzetik urik sartu ez dadin, urak hondatu egiten du-eta egurra.

6) LEIHOAK, pertsianak, errejak, balkoiak eta barandak adjudikaziodunak aldez aurretik ezarritako egutegi bati jarraituta garbitu beharko dira, zona bakoitzak dituen ezaugarrietara egokituta. Horretaz gain, urtean behin garbiketa sakonagoa eta osoa egin beharko da.

Barruko eta kanpoko kristalak (barrutik garbi daitezkeenak) garbitu beharko dira, markoak eta leihobarrenak barne. Egin behar dena zera da: urez eta kristala garbitzeko egokia den produktuaz osatutako soluzioa kristalean zabaldu, (eta kristalak ezer itsatsita baleuka, pasatu errasketa) sikatu eta distira eman. Kristalaren markoa baieta batez igurtzi. Pertsianak garbitzeko bakoitzaren materialari ondo datorkion produktua erabiliko da. Kanpoko ate eta leihonetako errejak urez eta detergentez garbitu beharko dira, gero, ur garbiz pasatu eta sikitzen utzi.

Kanpoko balaustradetan pilatutako hautsa eta zikinka garbitu egin beharko da, betiere, elementu horien materialaren arabera.

7) IGOGAILUAK: aldian-aldian garbituko dira, aldez aurretik ezarritako programa bati jarraituta, betiere, kabinak dituen ezaugarriei ondo datoziak produktuak erabilita eta produktu horiek desinfektatzaillekin nahastuta.



## ERANSKIN II

### **1. ERANSKINA**

Zerbitzuak ondoko maiztasuna eta baldintzak izango ditu, eraikin bakoitzaren eta lanaren ezaugarrien arabera:

### **LEGARDA IKASTETXEA**

Kokapena: SABINO ARANA 11

- Eskola publikoa (eraikina Udalaren da)
- Garbiketa-lanetarako egutegia: 10 hilabete
- Garbiketa-lanen maiztasuna: egunero, astelehenetik barikura.

Egin beharreko lanen deskribapena:

#### EGUNERO

- Zoruak erratzaz garbitu.
- Alfonbrak eta moketak garbitu.
- Altzarietan pilatzen den hautsa garbitu.
- Komunak eta konketak zehatz garbitu.
- Paperontziak garbitu.
- Ondoko zoruak urez garbitu: hall-etakoak, geletako sarreretako eta atxikitako geletakoak.

#### ASTERO

- Ondoko zoruak urez garbitu: ikas-geletakoa eta atxikitako geletakoak.
- Barruko materialak garbitu.
- Erradiadoreetako hautsa garbitu.
- Aire-irteeretako hautsa garbitu.
- Ateak eta markoak garbitu.
- Sarrerako hall-eko kristalak garbitu.
- Telefonoak eta ekipo informatikoak garbitu.
- Argi-sakagailuak garbitu.

#### HILERO

- Barruko materialak garbitu.
- Kanpoko kristalak garbitu, kanpotik eta barrutik.

#### HIRU HILERO

- Alfonbrak eta moketak garbitu.
- Altzariak sakon garbitu.
- Pertsianetako hautsa garbitu.
- Fatxadako altzairu eta aluminiozko elementuak garbitu.
- Fatxadako kartelak garbitu.
- Gortinak garbitu.





URTEAN BEHIN

- Zoruak desugertu eta, ostean, distira eman.
- Zoruak spray bidez garbitu.
- Kanpoko argi-puntuak garbitu.
- Pertsinak ondo eta sakon garbitu.

Legarda ikastetxearen garbiketa-zerbitzuko lanak ordutegi honen barruan egin beharko dira: 15:30etik 21:00etara eta 6:00etatik 8:00etara bitartean.



## LAUKARIZ IKASTETXEA

Kokapena: Laukariz Bidea 62

- Eskola publikoa (eraikina Udalaren da)
- Garbiketa-lanetarako egutegia: 10 hilabete
- Garbiketa-lanen maiztasuna: egunero, astelehenetik barikura.

Egin beharreko lanen deskribapena:

### EGUNERO

- Zoruak erratzaz garbitu.
- Alfonbrak eta moketak garbitu.
- Altzarietan pilatzen den hautsa garbitu.
- Komunak eta konketak zehatz garbitu.
- Paperontziak garbitu.
- Ondoko zoruak urez garbitu: hall-etakoak, geletako sarreretako eta atxikitako geletakoak.
- Eraikin zaharreko sarreran dagoen arkuea garbitu.

### ASTERO

- Ondoko zoruak urez garbitu: ikas-geletakoa eta atxikitako geletakoak.
- Egunero erabiltzen diren guneetako elementu metalikoak eta kristalezkoak garbitu.
- Aire-irteeretako hautsa garbitu.
- Ateak eta markoak garbitu.
- Telefonoak eta ekipo informatikoak garbitu.
- Argi-sakagailuak garbitu.

### HILEROK

- Barruko materialak garbitu.
- Kanpoko kristalak garbitu, kanpotik eta barrutik.

### HIRU HILEROK

- Alfonbrak eta moketak garbitu.
- Altzariak sakon garbitu.
- Pertsianetako hautsa garbitu.
- Fatxadako altzairu eta aluminiozko elementuak garbitu.
- Fatxadako kartelak garbitu.
- Fatxadako marmola garbitu.
- Gortinak garbitu.

### URTEAN BEHIN

- Zoruak desugertu eta, ostean, distira eman.
- Zoruak spray bidez garbitu.
- Kanpoko argi-puntuak garbitu.
- Pertsinak ondo eta sakon garbitu.

Laukariz ikastetxearen garbiketa-zerbitzuko lanak ordutegi honen barruan egin beharko dira: 15:30etik 21:00etara eta 6:00etatik 8:00etara bitartean.





## KOMUN PUBLIKOAK

Kokapena: Foruen enparantza – Uriguen zugastia – Atxurizubi – Olalde – Lauaxeta – Aita Elorriaga – Goietako plaza

- Komun publikoak
- Garbiketa-lanetarako egutegia: 12 hilabete
- Garbiketa-lanen maiztasuna: egunero, astelehenetik domekara.

Egin beharreko lanen deskribapena:

### EGUNERO

- Pixontziak garbitu eta desinfektatu (ondoko elementuak barne: tresna sanitarioak, azuleju-estaldura duten paramentu bertikalak, atea eta abar)

### ASTERO

- Goiko aldeak garbitu, azulejuz jantzita dauden goi-aldeak garbitu, kristalak garbitu, argi-sakagailuak eta leihos-markoak garbitu.

### HIRU HILEROK

- Argi-puntuak garbitu

Komun publikoen garbiketa-zerbitzuko lanak ordutegi honen barruan egin beharko dira: 6:00etatik 8:00etara eta 13:00etatik 15:00etara bitartean.



**UDAL BULEGOAK.- BEHEKO SOLAIRUA, 1., 2. ETA 3. SOLAIRUA**

Kokapena: Trobika 1

- Udal bulegoak: beheko solairua, 1., 2. eta 3. solairuak
- Garbiketa-lanetarako egutegia: 12 hilabete
- Garbiketa-lanen maiztasuna: egunero, astelehenetik barikura.

Egin beharreko lanen deskribapena:

1.- EGUNERO.- UDALTZAINGOAREN LOKALAK, domeka eta jaiegunetan:

- Altzariak garbitu.
- Zoruak erratzaz pasatu eta urez garbitu.
- Komunak garbitu eta desinfektatu.

1.1.- EGUNERO.- BEHEKO SOLAIRUA, 1., 2. ETA 3. SOLAIRUA

Astelehenetik barikura

- Altzariak garbitu.
- Zoruak erratzaz garbitu.

1.2.- EGUNERO.- BEHEKO SOLAIRUA, astelehenetik 1., 2. ETA 3. SOLAIRUA  
barikura.

- Komunak garbitu eta desinfektatu.
- Ondoko zoruak garbitu: Harrera Bulegoko eta Hirigintzako herritarrentzako arreta-gunea.

1.3.- EGUNERO.- SARTZEKO ESKAILERAK, astelehenetik barikura.

- Zoruak erratzaz pasatu eta urez garbitu.
- Zoruak erratzaz pasatu eta urez garbitu.
- Eskubandak garbitu.

1.1.- EGUNERO.- BEHEKO SOLAIRUA, 1., 2. ETA 3. SOLAIRUA, ETA SARTZEKO ESKAILERAK.

- Ondoko zoruak garbitu: Harrera Bulegoko (zaharreko eta barriko) eta Hirigintzako herritarrentzako arreta-gunea.
- Metalezko hormak, kanpoko kristalak eta igogailuko ispilua garbitu.
- Telefonoak eta ekipo informatikoak garbitu.
- Argi-sakagailuak garbitu.

2. HILER.- UDALTZAINGOAREN LOKALAK, BEHEKO SOLAIRUA, 1., 2. ETA 3. SOLAIRUA ETA SARTZEKO ESKAILERAK:

- Goiko aldeko altzariak garbitu.
- Eskailerako hormak garbitu.
- Barruko markoak eta kristalak garbitu.
- Kanpoko iragarki-oholak garbitu.
- Kanpoko markoak eta kristalak garbitu.

HILER.- UDALTZAINGOAREN LOKALAK, BEHEKO SOLAIRUA, 1., 2. ETA 3. SOLAIRUA ETA SARTZEKO ESKILARAK:

- Azulejuak garbitu.
- Barruko eta kanpoko ateak garbitu.



3. URTEAN BEHIN.- UDALTZAINGOAREN LOKALAK, BEHEKO SOLAIRUA, 1., 2. ETA 3. SOLAIRUA ETA SARTZEKO ESKILARAK:

- Argi-puntuak garbitu.
- Zoruak desugertu eta, ostean, distira eman.
- Moketa garbitu.

Sail hauen garbiketa-zerbitzuko lanak ordutegi honen barruan egin beharko dira: 15:30etik 21:00etara eta 6:00etatik 8:00etara bitartean.



## OBRA ETA ZERBITZUEN PABILOIA

Kokapena: Elorduigoitia, 16

- Obretako lan-taldearen udal biltegia.
- Garbiketa-lanetarako egutegia: 12 hilabete
- Garbiketa-lanen maiatasuna: egunero, astelehenetik barikura.

Egin beharreko lanen deskribapena:

EGUNERO.- GARBI-GELAK ETA KOMUNAK, ETA BULEGOA:

- Altzariak garbitu: garbi-gelak eta komunak egunero, eta bulegoan egun birik baten.
- Zoruak erratzaz pasatu eta urez garbitu.
- Komunak garbitu eta desinfektatu.

HAMABOSTEAN BEHIN.- PABILOIA:

- Zorua garbitu, erratza pasatu, telefonoak eta ekipo informatikoak garbitu, argi-sakagailuak garbitu.

HLERO.- GARBI-GELAK ETA KOMUNAK, ETA BULEGOA:

- Azulejuak garbitu.
- Ateak garbitu.

HIRU HILERIK BEHIN.- GARBI-GELAK ETA KOMUNAK, ETA BULEGOA:

- Barruko kristalak garbitu.

HILERO.- GARBI-GELAK ETA KOMUNIAK, ETA BULEGOA:

- Argi-puntuak garbitu.

Garbiketa-zerbitzuko lanak ordutegi honen barruan egin beharko dira: 15:30etik 21:00etara eta 6:00etatik 8:00etara bitartean.



### OLENTZEROREN ETXEA

Kokapena: Landetxo kalea, 8

- Olentzeroren Etxea
- Garbiketa-lanetarako egutegia: 11 hilabete
- Garbiketa-lanen maiztasuna: astelehenetik zapatura.

Egin beharreko lanen deskribapena:

#### EGUNERO

- Altzariak garbitu.
- Zoruak erratzaz garbitu.
- Moketaz jantxitako zoruak garbitu.
- Komunak garbitu eta desinfektatu.
- Bisitariei harrera egin zaien guneetako zoruak urez garbitu.
- Hondakin solidoak kanpora atera.

#### ASTERO

- Azulejuak garbitu.
- Ateak garbitu.
- Lan-guneetako zoruak urez garbitu, gutxienez ere astean birritan.
- Telefonoak eta ekipo informatikoak garbitu.
- Argi-sakagailuak garbitu.

#### HILERO

- Goiko aldeko altzariak garbitu.
- Eskailerako hormak garbitu.
- Barruko eta kanpoko kristalak garbitu.

#### HIRU HILERIK BEHIN

- Hormak garbitu.

#### URTEAN BEHIN

- Argi-puntuak garbitu.
- Zoruak desugertu eta, ostean, distira eman.
- Moketa garbitu.

Garbiketa-zerbitzuko lanak ordutegi honen barruan egin beharko dira: astelehenetik zapatura 18 ord./ast. (aste barruko jaiegunetan ere bai); eta azaroan, abenduan, urtarrilean, Aste Santuan eta Paskua Astean astelehenetik domekara, 21 ord./ast.



## EPAITEGIA

Kokapena: Aita Elorriaga, 7

- Bake Epaitegiaren bulegoak.
- Garbiketa-lanetarako egutegia:
- Garbiketa-lanen maiztasuna: Astelehenetik barikura.

Egin beharreko lanen deskribapena:

### EGUNERO

- Altzariak garbitu.
- Zoruak erratzaz garbitu.
- Komunak garbitu eta desinfektatu.
- Herritarrei harrera egiteko zaien guneetako zoruak urez garbitu.

### ASTERO

- Lan-guneetako zoruak urez garbitu.
- Telefonoak eta ekipo informatikoak garbitu.
- Argi-sakagailuak garbitu.

### HILERO

- Azulejuak garbitu.
- Ateak garbitu.
- Goiko aldeko altzariak garbitu.
- Barruko eta kanpoko kristalak garbitu.

### URTEAN BEHIN

- Argi-puntuak garbitu.
- Zoruak desugertz eta, ostean, distira eman.

Garbiketa-zerbitzuko lanak ordutegi honen barruan egin beharko dira: 15:30etik 21:00etara eta 6:00etatik 8:00etara bitartean.



## HHE

Kokapena: Aita Elorriaga, 38

- Helduen hezkuntzarako ikas-gelak.
- Garbiketa-lanetarako egutegia: 10 hilabete
- Garbiketa-lanen maiztasuna: egunero, astelehenetik barikura.

Egin beharreko lanen deskribapena:

### EGUNERO

- Bulegoko ekipoari hautsa kendu.
- Zoruak garbitu edo erratz hezea pasatu.
- Zoruak urez garbitu.
- Alfonbrak garbitu.
- Komunak garbitu eta desinfektatu (WC-ak, konketak etab.)
- Altzariak eta atea garbitu (hautsa, jendeak idatzitakoak, orbanak...)
- Paperontziak garbitu.

### ASTERO

- Barruko metalezko elementuak garbitu (eskulekuak, ateen heldu-lekuak...)
- Altzariak zehatz garbitu (mahaia, armairua, aulkia...)
- Erradiadoreetako hautsa garbitu.
- Telefonoak eta ekipo informatikoak garbitu.
- Argi-sakagailuak garbitu.
- Kanpoko aldea garbitu.

### HILERO

- Ateen eta guneak banatzeko erabiltzen diren manparen markoak eta orriak garbitu
- Lanparak eta argiztatze-ekipoak garbitu (pantailak, tutu fluoreszenteak, goritasun-lanparak... )
- Landareak, apainketako elementuak (eskulturak, koadroak...) eta landare artifizialak garbitu.

### HIRU HILERIK BEHIN

- Hormetako hautsa garbitu, estaldurei eragin gabe.
- Kristalak alde bietatik garbitu.

HHEren lokalen garbiketa-zerbitzuko lanak ordutegi honen barruan egin beharko dira: 15:30etik 21:00etara eta 6:00etatik 8:00etara bitartean.



## GURUTZE GORRIA

Kokapena: Elorduigoitia, 16A

- Gurutze Gorriaren lokala.
- Garbiketa-lanetarako egutegia: 12 hilabete
- Garbiketa-lanen maiztasuna: astelehen eta barikuetan.

Egin beharreko lanen deskribapena:

### EGUNERO

- Bulegoko ekipoari hautsa kendu.
- Zoruak garbitu edo erratz hezea pasatu.
- Zoruak urez garbitu.
- Alfonbrak eta moketa garbitu.
- Kontsulta-gelak garbitu eta desinfektatu.
- Ohatalik garbitu eta desinfektatu.
- Komunak garbitu eta desinfektatu (WC-ak, konketak etab.) )
- Altzariak eta atea garbitu (hautsa, jendeak idatzitakoak, orbanak... )
- Paperontziak garbitu.

### ASTE BIRIK BEHIN

- Barruko metalezko elementuak garbitu (eskulekuak, ateen heldu-lekuak... )
- Altzariak zehatz garbitu (mahaia, armairuak, aulkia... )
- Erradiadoreetako hautsa garbitu.
- Telefonoak eta ekipo informatikoak garbitu.
- Argi-sakagailuak garbitu.
- Kanpoko aldea garbitu.

### HILERO

- Ateen eta guneak banatzeko erabiltzen diren manparen markoak eta orriak garbitu
- Lanparak eta argiztatze-ekipoak garbitu (pantailak, tutu fluoreszenteak, goritasun-lanparak...)
- Landareak, apainketako elementuak garbitu (eskulturak, quadroak...) eta landare artifizialak garbitu.

### HIRU HILERIK BEHIN

- Hormetako hautsa garbitu, estaldurei eragin gabe.
- Kristalak alde bietatik garbitu.

Gurutze Gorriaren lokalaren garbiketa-zerbitzuko lanak ordutegi honen barruan egin beharko dira: 15:30etik 21:00etara eta 6:00etatik 8:00etara bitartean.



### ANDRA MARI ERAIKINA

Kokapena:

- Andra Mari gunea
- Garbiketa-lanetarako egutegia: 12 hilabete
- Garbiketa-lanen maiztasuna: astelehenetan.

Egin beharreko lanen deskribapena:

#### ASTERO

- Zoruak erratzaz garbitu.
- Zoruak urez garbitu.
- Altzarietan pilatzen den hautsa garbitu.

#### HIRU HILERIK BEHIN

- Beheko solairuko kristalak alde bietatik garbitu.
- Beheko solairuko fatxadaren metalezko estruktura eta elementuak garbitu.

#### SEI HILERIK BEHIN

- Beheko solairuko goialdeko kristalak alde bietatik garbitu.
- Beheko solairuko goialdeko fatxadaren metalezko estruktura eta elementuak garbitu.

Mantentze-zerbitzuko lanak ordutegi honen barruan egin beharko dira: 8:00etatik 15:30era bitartean.



## BABES ZIBILA

Kokapena: Elorduigoitia, 16A

- Babes Zibilaren lokalaren kokapena.
- Garbiketa-lanetarako egutegia: 12 hilabete
- Garbiketa-lanen maiztasuna: Hamabostean behin (astelehenetan).

Egin beharreko lanen deskribapena:

### ASTE BIRIK BEHIN

- Zoruak erratzaz garbitu.
- Zoruak urez garbitu.
- Altzarietan pilatzen den hautsa garbitu.
- Komuna zehatz garbitu.
- Telefonoak eta ekipo informatikoak garbitu.
- Argi-sakagailuak garbitu.

### HIRU HILERIK BEHIN

- Ateak eta markoak garbitu.
- kristalak barrutik eta kanpotik garbitu.
- Fatxadako altzairu eta aluminiozko elementuak garbitu.
- Fatxadako kartelak garbitu.

### URTEAN BEHIN

- Argi-puntuak garbitu.

Babes Zibilaren lokalaren garbiketa-zerbitzuko lanak ordutegi honen barruan egin beharko dira: 15:30etik 21:00etara eta 6:00etatik 8:00etara bitartean.



## ERABILERA ANITZEKO ERAIKINEKO LOKALA

Kokapena: Elorduigoitia, 16B

- Erabilera Anitzeko Eraikinean dago kokatuta lokal hau.
- Garbiketa-lanetarako egutegia: 12 hilabete
- Garbiketa-lanen maiatzasuna: Hamabostean behin (astelehenenetan).

Egin beharreko lanen deskribapena:

### ASTE BIRIK BEHIN

- Zoruak erratzaz garbitu.
- Zoruak urez garbitu.
- Komuna garbitu eta desinfektatu.
- Telefonoak eta ekipo informatikoak garbitu.
- Argi-sakagailuak garbitu.

### HIRU HILERIK BEHIN

- Altzariak sakon garbitu.
- Ateak eta markoak garbitu.
- kristalak barrutik eta kanpotik garbitu.
- Fatxadako altzairu eta aluminiozko elementuak garbitu.

### URTEAN BEHIN

- Zoruak desugertu eta, ostean, distira eman.
- Zoruak spray bidez garbitu.
- Kanpoko argi-puntuak garbitu.

Erabilera Anitzeko Eraikinaren garbiketa-zerbitzuko lanak ordutegi honen barruan egin beharko dira: 8:00etatik 15:30era bitartean.



## 2. ERANSKINA

### LANGILEEN ZERRENDA

Garbiketa-zerbitzuak betetzen dituzten langileen zerrenda

#### LEGARDA IKASTETXEA:

LANPOSTUA	ORDU K.	ANTZINATASUNA	ASTEAN ZENBAT EGUN
GARBITZAILEA	35 ord./ast.	1989/09/04	Astelehenetik barikura
GARBITZAILEA	35 ord./ast.	2007/08/15	Astelehenetik barikura
GARBITZAILEA	35 ord./ast.	1999/04/12	Astelehenetik barikura
GARBITZAILEA	25 ord./ast.	2002/09/16	Astelehenetik barikura
GARBITZAILEA	10 ord./ast.	1989/08/01	Astelehenetik barikura
GARBITZAILEA (Legarda eta Udaletxea)	15 ord./ast.	2006/10/19	Astelehenetik barikura

#### LAUKARIZ IKASTETXEA

LANPOSTUA	ORDU K.	ANTZINATASUNA	ASTEAN ZENBAT EGUN
GARBITZAILEA	25,5 ord./ast.	2002/09/02	Astelehenetik barikura
GARBITZAILEA	25,5 ord./ast.	2009/10/23	Astelehenetik barikura
GARBITZAILEA	25,5 ord./ast.	2010/09/03	Astelehenetik barikura

#### KOMUN PUBLIKOAK ETA UDALTZAINGOAREN LOKALAK:

LANPOSTUA	ORDU K.	ANTZINATASUNA	ASTEAN ZENBAT EGUN
GARBITZAILEA (komunak) -JAIEGUNETAKO GEHIGARRIA-	8 ord./ast.	2007/06/15	Astelehenetik domekara
GARBITZAILEA (Komuniak -17- eta Udaltz. -14-) -JAIEGUNETAKO GEHIGARRIA-	31 ord./ast.	2001/10/09	

#### UDAL BULEGOAK.- 1., 2. ETA 3. SOLAIRUA (bulegoak)

LANPOSTUA	ORDU K.	ANTZINATASUNA	ASTEAN ZENBAT EGUN
GARBITZAILEA	35 ord./ast.	2009/02/02	Astelehenetik barikura
GARBITZAILEA	31 ord./ast.	2010/09/03	Astelehenetik barikura
GARBITZAILEA (Udaletxea eta Legarda)	20 ord./ast.	2006/10/19	Astelehenetik barikura

Astean 35 lan-ordu dituen garbitzailea. Antzinatasuna: 2000/06/05. Ezintasun iraunkor osoa (itzulgarria) dauka, 04/2014.

#### OBRA ETA ZERBITZUEN PABILOIA

LANPOSTUA	ORDU K.	ANTZINATASUNA	ASTEAN ZENBAT EGUN
GARBITZAILEA	9 ord./ast.	1997/03/01	Astelehenetik barikura



OLENTZEROREN ETXEA:

LANPOSTUA	ORDU K.	ANTZINATASUNA	ASTEAN ZENBAT EGUN
GARBITZAILEA – Jaiegunetako gehigarria	18 ord./ast.	2009/10/23	Astelehenetik domekara

Olentzeroren Etxea egun guztieta garbitzen da, astelehenetik hasi eta domekara arte, aste barruko jaiegunetan ere bai (18 ord./ast.). Azaroan, abenduan, urtarilean, Aste Santuan eta Paskua Astean garbikiketa-lanak astelehenetik domekara egingo dira (21 ord./ast.).

EPAITEGIA:

LANPOSTUA	ORDU K.	ANTZINATASUNA	ASTEAN ZENBAT EGUN
GARBITZAILEA	14,5 ord./ast.	2002/09/02	Astelehenetik barikura

HHE

LANPOSTUA	ORDU K.	ANTZINATASUNA	ASTEAN ZENBAT EGUN
GARBITZAILEA	10 ord./ast.	2013/09/01	Astelehenetik barikura

GURUTZE GORRIA:

LANPOSTUA	ORDU K.	ANTZINATASUNA	ASTEAN ZENBAT EGUN
GARBITZAILEA	0,75 ord./ast.	2011/11/19	Barikuak eta astelehenak
GARBITZAILEA	2,25 ord./ast.	29/05/2007	Barikuak eta astelehenak

ANDRA MARI:

LANPOSTUA	ORDU K.	ANTZINATASUNA	ASTEAN ZENBAT EGUN
GARBITZAILEA	1,00 ord./ast.		Astelehena

BABES ZIBILA:

LANPOSTUA	ORDU K.	ANTZINATASUNA	ASTEAN ZENBAT EGUN
GARBITZAILEA	1 ord./ egun 2rik baten		Hamabostean behin (astelehena)

ERABILERA ANITZEKO ERAIKINEKO LOKALAK:

LANPOSTUA	ORDU K.	ANTZINATASUNA	ASTEAN ZENBAT EGUN
GARBITZAILEA	1 ord./ egun 2rik baten		Hamabostean behin (astelehena)





**PLIEGO DE CONDICIONES TECNICAS, QUE HAN DE REGIR LA CONTRATACION DEL SERVICIO DE LIMPIEZA DE MANTENIMIENTO DE LOS CENTROS ESCOLARES DE LEGARDA, LAUKARIZ, LOS URINARIOS PUBLICOS, PABELLON DE OBRAS Y SERVICIOS, OFICINAS MUNICIPALES, JUZGADO, OLENTZERO ETXEA, EPA, LOCALES ANDRAMARI, PROTECCION CIVIL, CRUZ ROJA Y LOCALES EDIFICIO POLIVALENTE.**

I CONTENIDO DE CONTRATO

1. OBJETO DEL CONTRATO

El presente Pliego tiene por objeto fijar las condiciones técnicas, que han de regir en la licitación pública para la adjudicación de los servicios de limpieza de mantenimiento de:

Centro escolar de Legarda  
Centro escolar de Laukariz  
Urinarios públicos de:  
- Foruen Enparantza  
- Uriguen Zugasti  
- Atxurizubi  
- Olalde  
- Lauaxeta  
- Aita Elorriaga  
- Goieta plaza  
Pabellón de Obras y Servicios  
Oficinas Municipales  
Juzgado  
Olentzero etxea  
EPA  
Locales Andra Mari  
Protección Civil  
Cruz Roja  
Locales Edificio Polivalente

Contiene el conjunto de instrucciones y especificaciones que han de regir en la contratación y realización de los servicios indicados mediante procedimiento abierto.

La importancia de la correcta prestación del servicio viene determinada por la población docente, escolar y público al que se destina.

2. CONDICIONES TÉCNICAS GENERALES

2.1.- Se considera incluido en este contrato cien (100) horas de bolsa, para la realización de limpiezas extraordinarias no contempladas en los horarios indicados en el anexo. Mensualmente se presentará al Responsable de Mantenimiento el estado actual de uso de esas horas extras.



